*Organoa: Etxalarko Udalaren Osoko Bilkura.*
Organo: Pleno del Ayuntamiento de Etxalar.

*Batzarra: Ez-ohikoa*
*Sesión: Extraordinaria.*

*Deialdia: Lehena, legalki egina.*
Convocatoria: Primera, legalmente convocada.

*Eguna: Bi mila eta zazpiko maiatzaren hamarrean.*
Día: Diez y siete de mayo de dos mil siete.

*Ordua: Arratsaldeko zortzietan.*
Hora: A las ocho de la tarde.

*Lekua: Udaletxea.*
Lugar: Casa Consistorial.

*Bertaratuak* / Asistentes:

| | |
|---|---|
| *Alkatea* / El Alcalde | *D. Patxiku Irisarri.* |
| *Zinegotziak* / Concejales | *D. José Mª. Maia.* |
| | *Dª. Anabel Arburua.* |
| | *D. Manuel Leza.* |
| | *D. Agustín Arribillaga.* |
| | *Dª. Arantxa Zubieta.* |
| *Idazkaria* / Secretario | *D. José Luis Legarra.* |

| | |
|---|---|
| *GAI ZERRENDA* | ORDEN DEL DÍA |
| *1.- Hiri-Hondakinen Mankomuntatearen akta.* | 1.- Acta de la Mancomunidad de basuras. |
| *2.- Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen akta.* | 2.- Acta de la Mancomunidad de Servicios Sociales. |
| *3.- Bertizko Partzuergo Turistikoaren akta.* | 3.- Acta del Consorcio Turístico de Bertiz. |
| *4.- Hiri-Hondakin Makomunitatearen akordioa, iraunkortasunaren aldeko Nafarroako Toki Entitateen Sarean sartzeari buruzkoa.* | 4.- Acuerdo de la Mancomunidad de basuras, sobre incorporación a la Red Navarra de Entidades Locales hacia la sostenibilidad. |
| *5.- Asolaborro aldera doan bidearen urbanizazioa.* | 5.- Urbanización del camino que va hacia Asolaborro. |
| *6.- Bekolandako 4. sektoreko urbanizazioa eskuratzea.* | 6.- Recepción de la urbanización del Sector 4 de Bekolanda. |
| *7.- Hiri-altzarietako lanak egiteko eskaintzak.* | 7.- Ofertas para las obras de mobiliario urbano. |
| *8.-Maiatzeko Uholdeek egin dituzten kalteei buruz.* | 8.- Sobre los daños por las inundaciones de mayo. |
| *9.- 2006ko kontuak.* | 9.- Cuentas de 2006. |
| *10.- Fakturak.* | 10.- Facturas. |
| *11.- Eskaerak eta galderak.* | 11.- Ruegos y preguntas. |

*1.GAIA*

1º. ASUNTO

*Gaia: Hiri-hondakinen Mankomunitatearen akta, 2007-05-03koa.*

Objeto: Acta de la Mancomunidad de basuras, de 03-05-2007.

*Aho batez ERABAKI DA:*

SE ACUERDA por unanimidad:

*Udalbatza jakinaren gainean geratzea.*

Darse por enterada la Corporación.

*2. GAIA*

2º. ASUNTO

*Gaia: Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen akta, 2007-05-14koa.*

Objeto: Acta de la Mancomunidad de Servicios Sociales, de 14-05-2007.

*Aho batez ERABAKI DA:*

SE ACUERDA por unanimidad:

*Udalbatza jakinaren gainean geratzea.*

Darse por enterada la Corporación.

*3. GAIA*

3º. ASUNTO

*Gaia: Bertizko Kontsorzio Turistikoaren akta, 2007-03-21ekoa.*

Objeto: Acta del Consorcio Turístico de Bertiz, de 21-03-2007.

*Aho batez ERABAKI DA:*

SE ACUERDA por unanimidad:

*Udalbatza jakinaren gainean geratzea.*

Darse por enterada la Corporación.

*4. GAIA*

4º. ASUNTO

*Gaia: Hiri-Hondakinen Mankomunitatearen Juntaren akordioa, 2007ko maiatzaren 3koa, iraunkortasunaren aldeko Nafarroako Toki Entitateen Sarean sartzeari buruzkoa.*

Objeto: Acuerdo de la Junta de la Mancomunidad de basuras, de 3 de mayo de 2007, sobre incorporación a la Red Navarra de Entidades Locales hacia la sostenibilidad.

*Akordioak honela dio:*

El acuerdo dice como sigue:

*10. GAIA*

10º ASUNTO

*10.1 Gaia: Iraunkortasunaren aldeko Nafarroako Toki Entitateen Sarean sartzeari buruz.*

10.1 Objeto: Sobre incorporación a la Red Navarra de Entidades Locales hacia la sostenibilidad.

*Azalpenak:*

Exposiciones:

*Presidentea: Toki Agenda 21eko Bortzirietako batzordeak proposatu*

El Presidente: La Comisión de Cinco Villas correspondiente a la

*zuen Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatea sare horretan sartzea aurtengoz, eta Mankomunitatearen bitartez aurreikusitako proiektuak tramitatzea.*

Agenda Local 21 propuso que se incorpore como socio ordinario por este año en la mencionada Red la Mancomunidad de Residuos Urbanos de Bortziriak-Cinco Villas, y tramitar a través de la misma los proyectos previstos.

*Bertzeak bertze kontutan hartu da kide bakoitzak 1.000,00 euro ordaindu behar duela.*

Entre otros extremos se ha tenido en cuenta que cada miembro debe abonar 1.000,00 euros.

*Manuel Iriarte: Komenigarria iruditzen zaio erabaki honi dagokion adostasuna udalei eskatzea.*

Manuel Iriarte: Considera conveniente solicitar a los Ayuntamientos la conformidad con el presente acuerdo.

*Azalpenak bukatu ondoren, eta ikusirik Nafarroako Toki Entitateen iraunkortasunaren aldeko Sarea izeneko elkartearen estatutuak,*

Finalizadas las deliberaciones y vistos los estatutos de la Asociación “Red Navarra de Entidades Locales hacia la Sostenibilidad”.

*Aho batez, gehiengo absolutua lortuta, erabaki da:*

Se acuerda por unanimidad, habiendo obtenido la mayoría absoluta,

*1) Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatea “Iraunkortasunaren aldeko Nafarroako toki entitateen Sarea” izeneko elkarteko kidea izatea eskatzea.*

1) Solicitar la incorporación de la Mancomunidad de Residuos Urbanos de Bortziriak-Cinco Villas como socio ordinario en la Asociación “Red de Entidades Locales hacia la Sostenibilidad”.

*2) Mankomunitateko Presidentea izendatzea aipatutako elkarterako ordezkari. Horrek beste pertsona batean delegatzen ahal du.*

2) Designar como representante en la citada asociación al Presidente de la Mancomunidad o persona en quien delegue.

*3) Presidenteari ahalmena ematea beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko, akordio hau garatzeko edo aitzina eramateko, elkartearen kuota barne (1.000,00 euro).*

3) Facultar al Presidente para la firma de cuantos documentos sean precisos en desarrollo o ejecución de este acuerdo, incluida la cuota de asociado establecida (1.000,00 euro).

*Alkateak azaldu ditu akordioan bertan aipatzen diren arrazoiak, eta aztertu ondoren,*

El Alcalde expone las razones que en el mismo acuerdo de señalan y previo examen,

*Aho batez ERABAKI DA:*

SE ACUERDA por unanimidad:

*Etxalarko udalaren adostasuna ematea Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitatearen akordioari.*

Expresar la conformidad del Ayuntamiento de Etxalar al acuerdo de la Mancomunidad de basuras de Bortziriak-Cinco Villas.

*5. GAIA*

5º. ASUNTO

*Eskatzailea: Hilda Beatriz Codagnone Iarussi.*

*Eskaera: Asolaborro aldera, Katastroaren 2. poligonoko 357. partzela doan bidea urbanizatzeko baimena.*

Solicitante: Hilda Beatriz Codagnone Iarussi.

Solicita: Autorización para urbanizar el camino que se dirige hacia Asolaborro, a la parcela 357 del polígono catastral 2.

*Azalpenak:*

Exposiciones:

*Alkatea: Orset arkitektoak esaten du "urbanización del camino existente", baina ez da beti oraingo bidetik egiten.*

El Alcalde: El arquitecto Orset dice "urbanización del camino existente, pero no sigue siempre el trayecto actual.

*Zenbait biztanlek kexa agertu dute. Aipatzen dutenez, zuzen egiten bada malda oso handia eta arriskutsua geratuko da.*

Algunos vecinos se han quejado. Según manifiestan, si se ejecuta de forma recta, se quedará una pendiente muy grande y arriesgada.

*Etxeak egiten badira, kamioiek arazoak izanen dituzte.*

Si se construyen casas los camiones tendrán problemas.

*Ez dugu bidea ukatu nahi, baina bertze alternatiba hobe bat ikusi behar da.*

No queremos negar el camino, pero hay que ver otra alternativa mejor.

*Ura ere zuzenean etorriko da eta ez orain bezala bi aldetatik.*

El agua también vendrá de forma directa y no como ahora por ambos lados.

*Gainera Iparraldera ematen du.*

Además da hacia el Norte.

*Orduan bertze toki bat ikusteko eskatzen dute.*

Por ello solicitan que se vea otro lugar.

*Guk ere arazoak ikusten ditugu.*

Nosotros también vemos problemas.

*Orduan, bertze proposamen bat egiteko eskatzen dugu, hilabete bateko epean.*

Entonces, solicitamos que formulen otra propuesta en el plazo de un mes.

*M. Leza: Gure aldetik ez du bat egiten Etxalarrek behar dituen baldintza urbanistikoak betetzeko. Bidea nola den eta ondoko etxeak ikusita, arriskua badago, eta ados gaude bertze proposamen bat aurkezteko eta, behar bada, bilera bat egiteko.*

M. Leza: Por nuestra parte no se adecua para cumplir las condiciones urbanísticas de Etxalar. Viendo cómo es el camino, y la proximidad de las casas, hay riesgo, y estamos de acuerdo en que se presente otra propuesta, y en que se celebre, en su caso ,una reunión.

*Azalpenak bukatu ondoren,*

Finalizadas las deliberaciones,

*Aho batez ERABAKI DA:*

SE ACUERDA por unanimidad:

*Lehenbizikoa. Eskatzaileari adieraztea egin nahi den bidea oso arriskutsua dela udalaren eta biztanleen ustetan.*

Primero.- Manifestar a la solicitante que el camino que se pretende realizar es muy arriesgado, según entienden el Ayuntamiento y los vecinos.

*Bigarrena.- Horren ondorioz eskatzaileari proposatzea bertze alternatiba bat aztertu eta aurkeztu dezala.*

Segundo.- En consecuencia, proponer a la solicitante que estudie y presente otra alternativa.

*6. GAIA*

6º. ASUNTO

*Gaia: Bekolandako 4. Sektoreko urbanizazioa.*

Objeto: Urbanización del Sector 4 de Bekolanda.

*Eskaerak honela dio:*

La solicitud dice lo siguiente:

Oleg Jiménez Besrukov, en representación de Aurreondo Construcciones S.A. expone:

Que habiendo solicitado anteriormente la recepción de las obras de urbanización ejecutadas, se rechazó la misma requiriendo la ejecución de un nuevo centro de transformación no previsto y del puente entre los sectores 3 y 4.

Que las obras del proyecto de urbanización, tal y como fue aprobado, se encuentran terminadas desde septiembre de 2006.

Que el centro de transformación se encuentra terminado. También está terminado el muro de contención lateral del camino y la barandilla de protección solicitados verbalmente, como mejor solución frente a la proyectada ante una posible inundación, aunque la mayor parte del camino no se encuentra en zona inundable.

Que las obras del puente no dependen únicamente del Sector 4, y que el proyecto del mismo, ajeno al proyecto de urbanización aprobado, está pendiente de revisión por no estar conforme el Ayuntamiento con las rasantes aprobadas, estando su ejecución garantizada por los avales existentes y que podrían actualizarse.

| | |
|---|---|
| *Udal arkitektoen informea ikusirik, eta ondoko hau kontutan hartuta:* | Visto el informe de los arquitectos municipales, y teniendo en cuenta lo siguiente: |
| *-Aipatutako zubia egin gabe dago.* | -El mencionado puente está sin construir. |
| *-Bidearen mugakideen erreklamazioa konponduta dagoela ez da ziurtatu.* | -La solución respecto a la reclamación de los colindantes del camino no se ha garantizado. |
| *-Transformadorea ez dago martxan.* | -El centro de transformación no está en marcha. |
| *Aho batez ERABAKI DA:* | SE ACUERDA por unanimidad: |
| *Bekolandako 4. sektoreko urbanizazioa eskuratzeko eskaera ukatzea.* | Denegar la solicitud de recepción provisional correspondiente a la urbanización del Sector 4 de Bekolanda. |
| *7. GAIA* | 7º. ASUNTO |
| *Gaia: Hiri-altzarietako lanak egiteko eskaintzak.* | Objeto: Ofertas para las obras de mobiliario urbano. |
| *Memoriaren egileak : Fco. Javier Chocarro eta Maria Urmeneta arkitektoak.* | Redactores de la memoria : Fco. Javier Chocarro y María Urmeneta, arquitectos municipales. |
| *Aurrekontua : 26.731,00 euro, BEZa barne.* | Presupuesto : 26.731,00 euros, IVA incluido. |
| *Eskaintzak aurkezteko gonbidapena 3 kontratistari bidali zaie.* | La invitación para presentar ofertas se les ha remitido a 3 contratistas. |
| *Aurkeztutako eskaintza bakarra, epea pasatu eta gero : S Odriozola – B. Huici, 28.067,72 euro, BEZa barne.* | Unica oferta presentada, una vez expirado el plazo : S. Odriozola - B. Huici, 28.067,72 euros, IVA incluido. |
| *Aztertu ondoren,* | Previo examen, |
| *Aho batez ERABAKI DA :* | SE ACUERDA por unanimidad : |
| *Eskaintza onartzea, udal arkitektoek idatzitako memoriari loturik.* | Aceptar la oferta, con sujeción a la memoria redactada por los arquitectos municipales. |

*Lanak egiteko epea : Hiru hilabetekoa izanen da, baina Bekolandan kanalizazioak babesteko instalazioak ubanizazioa bukatu ondoren komeni izango da egitea, bertzela ondatu ahalko direlakoz.*

El plazo para la ejecución de las obras será de tres meses, pero en Bekolanda las instalaciones previstas para protejer las canalizaciones será conveniente realizarlas después de la urbanización, para no perjudicar las mismas.

*8. GAIA*

8º. ASUNTO

*Gaia: Maiatzeko uholdeek egin dituzten kalteei buruz.*

Objeto: Sobre los daños por las inundaciones de mayo.

*Azalpenak:*

Exposiciones:

*Alkatea: Atzo Gobernuaren ordezkariak, Vicente Ripak, bilera bat egin zuen udalerri afektatuen ordezkariekin. Niri ez zidaten deitu.*

El Alcalde: Ayer el Delegado del Gobierno se reunió con los representantes de los municipios afectados. A mí no me citaron.

*Gaur faxaren bitartez bidali du atzo banatu zituzten idazkia eta formularioak, udalek eta partikularrek bete ondoren hilabete honen 31rako bidaltzeko.*

Hoy, por medio de fax ha enviado el escrito y los formularios distribuidos ayer, para que una vez cumplimentados por los ayuntamiento y los particulares se remitan para el 31 del presente mes.

*Kopiak zinegotziei banatu zaizkie.*

Se ha facilitado copia a los concejales.

*4 formulario dira, kalte hauek deklaratzeko:*

Se trata de 4 formularios para declarar los siguientes daños:

*1.- Azpiegitura, instalazio eta zerbitzu publikoetan egindako kalteak adierazteko.*

1.- Para expresar los daños en las infraestructuras, instalaciones y servicios públicos.

*2.- Nekazaritza produktuetan eta aziendetan egindako kalteak adierazteko.*

2.- Para expresar los daños en producciones agrícolas y ganaderas.

*3.- Ohiko etxebizitzan eta lehentasuna duten etxeko tresnetan egindako kalteak adierazteko.*

3.- Para expresar daños en la vivienda habitual y enseres de primera necesidad.

*4.- Nekazaritza partzela afektatuen egiturak lehen bezala uzteko, eta aziendak tokiz aldatu nahiz bazkatzeko gastuak adierazteko.*

4.- Para expresar gastos de restauración de parcelas agrícolas afectadas en su estructura, y traslado y manutención de ganado.

*Partikularrek deklaratutako kalteen bigarren zerrenda ere banatau zaie zinegotziei.*

*M. Leza: Nafarroako Gobernuak dirulaguntza osoa eskaini zuen, hau da gastu publikoen ehuneko ehun, baina gero argitaratutako kopuruak ez ziren hainbertzekoak.*

*Parlamentuan galdetu da, eta juridikoki eskainitakoa ematea derrigorrezkoa da.*

*Arantxa Zubietak eta M. Lezak ondoko kalteen berri eman dute zerrendetan sartzeko:*

*Lakain-Apezborro aldera doan bidea (Arrua).*
*Orizki auzoan (pirotegitik Tolareko Beheko bordaldera).*

*-Mendiondoko bordako bidea.*
*-Aldatseko bidea.*
*-Kamioko borda.*

*Errekei dagokienez, jakitera eman da "Confederación Hidrográfica del Norte"-k zenbait lan ondoko tokietan egindo dituela:*

*-Azpidetik Arrura: 4 zubi eta erreka.*
*-Antsolokuetako presa.*
*-Beheko bordako zubia (Urritzokieta).*
*-Beheko eskala (Olaldea). Egurra bilduko da, gero suegurra gisa banatzeko.*

*Arboztako erreka eta Txismista erreka ere orokorrean garbitzeko eskatuko zaio.*

*M. Lezak proposatu du errekei buruzko memoria bat egitea eta Konfederazioak ez duena egiten Nafarroako Parlamentuari eskatzea.*

Se ha distribuido también a los concejales la segunda relación de daños declarados por los particulares.

M. Leza: El Gobierno de Navarra ofreció la ayuda total, o sea el cien por cien de los gastos públicos, pero luego las cantidades publicadas eran inferiores.

Se ha preguntado en el Parlamento, y jurídicamente resulta obligado el conceder lo que se ha prometido.

Arantxa Zubieta y M. Leza han dado cuenta de los siguientes daños para inclusión en las relaciones:

-El camino que se dirige hacia el barrio de Lakain-Apezborro (Arrua).
-Barrio de Orizki (a partir de la granja de patos), hacia Tolareko Beheko boda.
-Camino de Mendiondoko borda.
-Camino de Aldatsea.
-Kamioko borda.

En relación con los ríos, la Confederación Hidrográfica del Norte efectuará labores en los siguientes lugares:

-De Azpidea a Arrua: 4 puentes y el río.
-Presa de Antsolokueta.
-Puente de Beheko borda (Urritzokieta)
-Escala de abajo (Olaldea). Se recogerá la leña para distribuir después como leña de hogar.

Se le solicitará también la limpieza del río en Arbozta y del río Tximista en general.

M. Leza propone redactar una memoria sobre los ríos, y solicitar al Parlamento de Navarra lo que no realice la Confederación.

*Azalpenak bukatu ondoren, eta emandako informazioa kontutan hartuta:*

Finalizadas las deliberaciones, y teniendo en cuenta la información facilitada:

*Aho batez ERABAKI DA:*

SE ACUERDA por unanimidad:

*Lehenbizikoa.- Kalte publikoak eta balorazioa deklaratzea dagokien inprimakian.*

Primero.- Declarar los daños públicos en el impreso correspondiente.

*Bigarrena.- Partikularrei ere aipatutako informazioa eta inprimakiak banatzea, kalteak eta balorazioa deklaratu ditzaten.*

Segundo.- Distribuir también a los particulares la mencionada información y los impresos para que declaren los daños y su valoración.

*Hirugarrena.- Deklarazioak Gobernuaren Ordezkaritzara bidaltzea ezarritako epean.*

Tercero.- Enviar las declaraciones a la Delegación del Gobierno, dentro del plazo establecido.

*Laugarrena.- Kalteen zerrendak osatzea, azalpenetan aipatu den bezala.*

Cuarto.- Completar las relaciones de daños, tal y como se ha mencionado en las exposiciones.

*9. GAIA*

9º. GAIA

*Gaia : 2006ko kontuak. Behin betiko onespena.*

Objeto : Cuentas de 2006. Aprobación definitiva.

*Emaitzak hauek dira:*

Los resultados son los siguientes:

*ARKEOA* / ARQUEO

| *KONTUAK*<br>CUENTAS | DIRU-SARRERAK<br>*INGRESOS* | ORDAINKETAK<br>*PAGOS* |
|---|---|---|
| Aurrekontu arrunta<br>*Presupuesto ordinario* | 584.428,44 | 705.325,14 |
| Aurrekontu itxiak<br>*Presupuestos cerrados* | 42.812,30 | 5.616,95 |
| Aurrekontutik kanpokoak<br>*Extrapresupuestarios* | 57.106,13 | 62.261,26 |
| Guztira<br>*Total* | 684.346,87 | 773.203,35 |

| | | |
|---|---|---|
| Hasierako izakinak<br>*Existencias iniciales* | 260.243.79 | |
| Azkeneko izakinak<br>*Existencias finales* | | 171.287,31 |
| GUZTIRA / *TOTAL* | 944.490,66 | 944.490,66 |

*DIRU-SOBERAKINAREN EGOERA*

*ESTADO REMANENTE DE TESORERIA*

| KONTZEPTUA<br>*CONCEPTO* | 2006ko EKITALDIA<br>*EJERCICIO 2006* | |
|---|---|---|
| + KOBRATU GABEAK<br>*PENDIENTES DE COBRO* | | 280.926,15 |
| +Aurrekontu arrunta<br>*Presupuesto ordinario* | 262.789,24 | |
| +Aurrekontu itxiak<br>*Presupuestos cerrados* | 68.800,18 | |
| +Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak<br>*Ingresos expresupuestarios* | 5.541,95 | |
| -Kobratzeko zailak diren zorrak<br>*Derechos de dificil recaudación* | 56.205,22 | |
| - ORDAINDU GABEAK<br>*PENDIENTES DE PAGO* | | 71.291,94 |
| +*Aurrekontu arrunta*<br>*Presupuesto ordinario* | 43.920,15 | |
| + Aurrekontu itxiak<br>*Presupuestos cerrados* | 12.072,74 | |
| +*Aurrekontuz kanpoko gastuak*<br>*Gastos expresupuestarios* | 15.299,05 | |

| | | |
|---|---|---|
| + DAGOEN DIRUA<br><br>*FONDOS LIQUIDOS* | | 171.287,31 |
| + *Finantza desbideratze negatiboak (urte guzietakoa)*<br><br>*Desviaciones de financiación acumuladas negativas.* | | 0,00 |
| GUZTIRA<br><br>*TOTAL* | | 380.921,52 |
| Finantza afektatuak dituzten gastuendako<br><br>soberakinak<br><br>*Remanente por gastos con financiación afectada* | | 0,00 |
| - Afektatutako baliabideentzak soberakinak<br><br>*Remanente por recursos afectados* | | 71.478,09 |
| Gastu orokorrendako soberakinak<br><br>*Remanente para gastos generales* | | 309.443,43 |

*2007ko apirilaren 26ko bileran ikusitako akatsak zuzendu direla baieztatu da, eta aipatu ziren zalantzak ere argitu dira.*

Se comprueba que los errores advertidos en la sesión de 26 de abril de 2007 se han corregido, y se aclaran las dudas que se plantearon.

*Jendaurrean egondako alegaziorik ez dela aurkeztu kontutan hartuta.*

Teniendo en cuenta que en el período de información pública no se han presentado alegaciones,

*Aho batez ERABAKI DA:*

SE ACUERDA por unanimidad:

*Lehenbizikoa.- 2006ko kontuak behin betikoz onestea.*

Primero.- Aprobar definitivamente las cuentas de 2006.

*Bigarrena.- Panificadora de Etxalar S.A.-tik 2006an hartutako kapital zenbatekoa eta hirigintza aprobetxamenduak Landagain eskola handitzeko obrak finantzatzeko erabiliko dira.*

Segundo.- Establecer que el importe de capital cobrado de la Panificadora de Etxalar en el año 2006 y los aprovechamientos urbanísticos se destinarán a financiar las obras de ampliación de la escuela Landagain:

*Zenbatdo horiek hauek dira:*

Dichos importes son los siguientes:

*-Panificadora de Etxalar S.A.: 25.132,80 euro.*

*-2004ko hirigintza aprobetxamenduak: 2.751,81 euro.*

*-2005eko hirigintza aprobetxamenduak: 40.529,51 euro.*

*-2006ko hirigintza aprobetxamendua: 3.057,97, euro.*

*Denetara: 71.478,09 euro.*

*Landagain eskola handitzeko obren finantziazioa:*

*Jakitera eman da Landagain eskola handitzeko obren finantziazioa hasiera batean honela zehazturik geratu dela, betiere dirulaguntza kopuruaren zain:*

-Panificadora de Etxalar S.A.: 25.132,80 euros.

-Aprovechamientos urbanísticos de 2004: 2.757,81 euros.

-Aprovechamientos urbanísticos de 2005: 40.529,51 euros.

-Aprovechamiento urbanístico de 2006: 3.057,97 euros.

Total: 71.478,09 euros.

Financiación de la ampliación de la escuela Landagain.

Se da cuenta de que la financiación de la ampliación de la escuela Landagain ha quedado concretada de la siguiente manera, en todo caso pendiente de la subvención:

*Gastuak denetara* / Total gastos ............................................*375.343,52 euro*

*Sarrerak* / Ingresos:

*Dirulaguntza % 80* / Subvención 80 % ..................................*300.275,00*

*Baliabide afektatuetako soberakinak* .......................................*71.478,09*
Remanente de Tesorería para recursos afectos

*Gastu orokorretarako soberakinak* .............................................*3.590,43*
Remanente de Tesorería para gastos generales

*Sarrerak denetara /* Total ingresos .........................................*375.343,52*

*9. GAIA*

*Gaia : Fakturak.*

9º. ASUNTO

Objeto : Facturas.

| | |
|---|---|
| *Tximistindar: Herriko Etxearen kalefakziorako argi instalazio berria (ehuneko 50 Bortzirietako hiri-hondakinen Mankomunitateak ordainduko du) /* Instalación eléctrica nueva para la calefacción del Ayuntamiento (el 50 por ciento abonará la Mancomunidad de basuras de Bortziriak) | *918,60* |
| *Ferretería Manolo: Albintearendako zenbait material eta Landagain eskolako komunetarako tapa berri bat /* Material diverso para el alguacil y una tapa para los servicios de la escuela Landagain | *46,92* |

| | |
|---|---|
| *Usoa Nekazari Kooperatiba: Land Roverrerako gasolioa / Gasoil para el Land Rover* | *30,00* |
| *Bera Informatica SL: Faxerako inprimatzeko lau bobina /* Cuatro bobinas de impresión para el fax | *40,90* |
| *Ibaizabal: Inprimagailurako hiru toner /* Tres toners para la ıpresora | *220,63* |
| *Kontseilua: Kultur Etxerako 2007.urtean Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeagatik /* Certificado Bai Euskarari del 2007 para la Casa de Cultura | *89,32* |
| *Gure Liburuak SL: Liburu bat Kultur Etxerako /* Un libro para la Casa de Cultura | *12,40* |
| *Grup Viada Mataró SL: Kultur Etxerako biltzen den mahai bat /* Una mesa que se recoge para la Casa de Cultura | *640,52* |
| *Spain-Tir: Kultur Etxeko mahai baten garraioa /* Transporte de una mesa de la Casa de Cultura | *133,45* |
| *Geserlocal, S.L.: Apirilako kontuak egiteko gastuak / Gastos por llevar las cuentas en abril* | *1773,19* |
| *Diario de Noticias: Berako Mendi igoeraren eguneko Udalaren iragarkia /* Anuncio del Ayuntamiento en relación con el día de la Subida de Montaña de Bera | *371,20* |
| *Asador La Basque: Suhiltzailendako otorduak uholde egunean / menús para los bomberos el día de las inundaciones.* | *100* |
| *Asador La Basque: 2006ko bestetako gastuak (2 faktura) / gastos de fiestas de 2006 (2 facturas)* | *214* |
| *José Angel Gienetxe, udal langilea: Uholdengatik dietak / dietas por las inundaciones* | *500* |

*Udalbatzak oniritzia eman die aipatutako faktura eta gastuei.*

La Corporación da el visto bueno a las mencionadas facturas y gastos.

*11. GAIA*

11º. ASUNTO

*Gaia : Eskaerak eta galderak.*

Objeto : Ruegos y preguntas.

*11.1.- Igerilekuetako bonoak Bortziriak mailan.*

11.1.- Bonos de las piscinas a nivel de Bortziriak.

*Joan den udan Bortzirietako igerileku publikoek bono amankunak egin zituzten 18 urtetik behetikoentzat.*

El pasado verano las piscinas públicas de Bortziriak realizaron bonos comunes para los menores de 18 años.

*Toki Onako Institutuko Guraso Elkarteak neurri hori mantentzea eskatu du.*

La APYMA del Instituto Toki Ona de Bortziriak ha solicitado mantener dicha medida.

*Hori dela eta, Udalbatzak adostasuna adierazi du neurri hori datorren udan ere aplikatzeko.*

Con este motivo, la Corporación manifiesta su conformidad para aplicar también dicha medida en el próximo verano.

*11.2.- Eguzki indarra hartzeko instalazioak.*

*Eraikuntzari buruzko Kodigo Tekniko berriak zenbait neurri ezarri ditu eguzki indarra aprobetxatzeko.*

*Etxalarko ezaugarri historiko eta arkitektonikoak kontutan hartuta, eta udal arkitektoen informearen arabera, Udalbatzak adostasuna eman du Kultur Departamentuari (Vianako Printzea Erakundea) Etxalarko udalerria arau horretatik kanpo utz dezala.*

*Horrenbestez eta besterik gabe, gaueko bederazi eta erdietan, alkateak bilerari amaiera eman dio, eta akta hau irakurri eta onartu ondoren, alkateak eta idazkariak sinatu dute, honek ziurtatuta.*

11.2.- Instalaciones de energía solar.

El nuevo Código Técnico de Edificación establece medidas para el aprovechamiento de la energía solar.

Teniendo en cuenta las cualidades históricas y arquitectónicas de Etxalar, y de conformidad con el informe de los arquitectos municipales, la Corporación expresa su conformidad para solicitar al Departamento de Cultura (Institución Príncipe de Viana) que excluya el municipio de Etxalar de dicha norma.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las nueve y media de la noche, el Alcalde levantó la sesión, de la que se extiende la presente acta que, leída y conforme, firman el Alcalde y Secretario que certifico.